



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urtarrilaren 18a

3. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- 19/2021 Foru Legea, abenduaren 29koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. Akats zuzenketa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, haur eta nerabeei arreta eta babesia eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da era aktiboan jardun dezan eta zahar-eteetako, eguneko zentroetako eta etxez etxeko laguntza zerbitzuetako langileentzako lan-hitzarmen bat taxutzea bultzatzea dezan. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan nekazaritza- eta abeltzaintza-makroustategiak instalatuak izatea eragotz dezan. Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesia ematen dio Lan-erreformarako, enpleguan egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuari. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten ditu Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilaria eta Osasuneko zuzendari nagusia, Osasun Departamentua gidaritzapean izanda bete dituzten eginkizunei dagokienez. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, *Noain 1521. Azken bataila - La última batalla* liburuaren ediziorako emandako dirulaguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Palacio de Aroztegia sustatzaileari obra-lizentzia administrazio-isiltasunagatik ematea baliogabetzea errefusatzen duen Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren ondotik egindako jarduketari eta aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- Galdera, Nafarroan jatorri hidraulikoko energia elektrikoaren ekoizpenerako indarrean dauden emakidei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, otso iberiarra espezie babestuen zerrendan sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, otso iberiarraren balizko erasoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**19/2021 Foru Legea, abenduaren 29koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.**

**AKATS ZUZENKETA**

Akats bat atzeman da Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 29ko 19/2021 Foru Legean, zeina 2021eko abenduaren 30eko 151. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen. Horrenbestez, honako zuzenketa hau egin da:

Hirugarren xedapen gehigarriak, lehenbiziko paragrafoan, honako hau dioen tokian:

“69/2018 Foru Dekretuak”.

Honako hau esan behar du:

“69/2010 Foru Dekretuak”.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Foru Lege proiektua, haur eta nerabeei arreta eta babesia eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa.**

**ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikuluaekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1. 2022ko urtarrilaren 31ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea Haur eta nerabeei arreta eta babesia eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Lege proiektuari

zuzenketak aurkezteko epea. Aipatu foru lege proiektua 2021eko abenduaren 14ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/LEY-00013).

**2. Erabaki hau** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

E saila:  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da era aktiboan jardun dezan eta zahar-etxeetako, eguneko zentroetako eta etxez etxe-ko laguntza zerbitzuetako langileentzako lan-hitzarmen bat taxutzea bultzatzea.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita era aktiboan jardun dezan eta zahar-etxeetako, eguneko zentroetako eta etxez etxe-ko laguntza zerbitzuetako langileentzako lan-hitzarmen bat taxutzea bultzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroan hirugarren adinekoak artatzen dituzten pertsonen unehonatan ez daukate hitzarmen autonomikorik; hortaz, alde handia dago langileen artean lan- eta soldata-baldintzetan, eta langile gehienek lan- eta soldata-baldintza oso prekariorik daukate.

Sektore horretan bizi duten problematikari helteko eta lan-baldintzak hobetzeko asmoz, maiztzean negoziazio-mahaia eratu zen, eta bertan

dira sektorean ordezkari gehien duten sindikatuak (ELA, UGT, LAB eta CCOO), patronala eta Nafarroako Gobernuaren ordezkariak. Horren helburua zen lan-hitzarmen bat taxutzea zahar-etxeetako, eguneko zentroetako eta etxez etxe-ko laguntza zerbitzuetako langileentzat, lan-baldintzak arautu eta egungoak hobetuko zituen eta irizpideak bateratuko zituen sektore osoko baldintzak homogeneoak izan daitezzen.

Sei hilabete joan dira mahaia eratu zenetik, baina, igaro den denbora hori guztia gorabehera, ez da inolako aurrerabiderik egin negoziazioan; are gehiago, langile horien lan-baldintzek nabarmen egin dute okerrera, gehiegizko esfortzua egin behar izaten ari baitira pandemiaren eraginez izaten ari diren aparteko lanak egiteko.

Baitezpadakoa da zahar-etxeetan, eguneko zentroetan eta etxez etxe-ko laguntza zerbitzuan egiten den arta-lana, eta hala balioetsi behar da. Zerbitzu horien kalitatea bermatuko bada, egungo lan-baldintzak ezinbestean hobetu beharra dago.

Hartara, eta hirugarren adinekoen sektorean lan egiten duten pertsonen lana duintzeko xedez, Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen du era aktiboan jardun dezan negoziazioan eta hitzarmena lehenbailehen taxutzea bultzatzea.

2. Patronalari exijitzen dio langileen ordezkariekin eskuz esku lan egin dezan hitzarmenaren garapenean aurrerabidea egiteko.

3. Aintzatetsi egin nahi du sektoreko profesionalek egindako lana, eta hartara helarazi nahi die bere elkertasuna eta babesa dutela eta prest dagoela sektoreko lan-baldintzak hobetzea sustatzeko eta aldezteko.

4. Eredua aldatzearen alde lan egiteko konpromisoa duela dio; halatan, pertsona erdigunean jarriko duen eredia garatuko duten kalitatezko zerbitzu publikoak hobetzea, handitzea eta ezartzea bultzatuko du.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan nekazaritza- eta abeltzaintza-makroustiategiak instalatuak izatea eragotz dezan.**

### *NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bazarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan nekazaritza- eta abeltzaintza-makroustiategiak instalatuak izatea eragotz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioaren eta foru parlamentarien elkartearen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute.

Espainiako estatu osoan areagotu da nekazaritzako ekoizpenaren eta kontsumoaren ereduari buruzko eztabaida eta, batez ere, makrohaztegiei buruzkoa. Abeltzaintza intentsiboaren ereduak, abeltzaintzako ustiategi handiek etekin ekonomiko handiak dakarzkiete enpresa sustaizaleei, baina mehatxu dira landa-eremuetako

langileei ogibidea ematen dieten abeltzaintzako familia-ustiategiek nahiz abeltzaintzako enpresa txiki eta ertainek bizirik irauteko, bai eta biztanlerik gabe geratzeko arriskuan dauden herrien garapen ekonomiko eta sozialerako ere.

Makrohaztegiek ustiategi txikiak hondoratzen dituzte, herriak biztanlerik gabe geratzea sustatzen dute, familiak lanik eta baliabiderik gabe geratzen baitira, eta kalitate okerragoko produktuak sortzen dituzte. Jasangaitzak dira ingurumenaren ikuspegitik; izan ere, milioika litro ur kontsumitzen dituzte, lurra eta akuiferoak kutsatzen dituzten munda-kantitate alimaleak sortzen dituzte, bai eta tonaka hondakin ere; bereziki, nitratoak eta CO<sub>2</sub>.

Gauza da, eta hori objektiboa da, abeltzaintza- eta nekazaritza-jardueraren errentagarritasuna txikia izateagatik familia-ustiategi askok bertan behera utzi behar dituztela eredu estentsibo eta erdiestentsiboak. Makrohaztegiak paratzeak areagotu besterik ez du egiten sektorearen berregituratze hori, eta kalte egiten dio familia-abeltzaintzari: azken urteotan, abeltzaintzako 11.000 ustiategi baino gehiagok itxi behar izan dute Espainiako estatuan.

Auzi honetan jada ukazina den errealitate bat dugu eztabaidagai: gure ekoizpen- eta kontsumo-eredua jasangaitza da. Biodibertsitatearen galera dakarren krisi ekologiko eta soziala bizi dugu, bai eta planetan bizitza suntsitzearen mehatxua dagien larrialdi klimatikoa eta kutsadura ere. Arro mediterraneoan, hori dena azkarragoa eta larriagoa izanen da desertifikazioaren, lehortearen eta muturreko fenomeno klimatikoen ondorioz. Alda-

ketak egin beharra dago gure ekoizpen- eta kontsumo-ereduan, eredia jasangarria izanen bada.

Munduan, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen arabera, abeltzaintza intentsiboak berak bakarrik egiten du berotegi-efektuko gasen isurketen % 14,5. Espainian, gure dietari loturiko isurketen % 80 egiten dute animalia-jatorriko produktuek. Espainian, abeltzaintza intentsiboak eragiten du berotegi-efektuko isurketa guztien % 9. 2020an, MAPAren arabera, 910 milioi abere hil zituzten hiltegiatan. Gurean, haragiaren kontsumo handi bati loturik dago ekoizpen-eredua, eta Europako Batzordeak horri buruz jada emana du bere iritzia, bai "Haztegitik mahaira estrategia"n bai Espainia 2050 txostenean bertan ere, non kontsumo hori nabarmen gutxitzearen aldeko apustua egiten baita, nekazaritzako elikagaien ekoizpen eta kontsumo askoz ere jasangarriago bat sustatzeko.

Eredu horren aurka –horren gotorlekurik adierazgarriena makrohaztegiak dira–, bada, izan, eredu jasangarri bat, Europaren nahiz estatuen nekazaritza-arloko estrategien kaltetu nagusia izan dena tamalez: abeltzaintza estentsibo, sozial eta familiarraren eredia, zeina jasangarria baita ekologiararen aldetik, biodibertsitatea zaintzen baitu, lurra hobetzen baitu, larreen bidez berotegi-efektuko gasak finkatzen baititu –ondorioz, moteldu egiten da klima-aldaketa– eta, gainera, aziendak eredu horretan suteen kontrako babeserako balio baitu. Abeltzaintza-eredu horrek enplegua sortzen du, populazioa lurraldean errotzen du eta kalitate handiko elikagaiak ekoiztea ahalbidetzen du.

Makrohaztegi intentsiboak, aldiz, ekoizpen masibo, azkar eta ahal den merkeenak ezaugarritzen ditu; ondorioz, kostu ekologikoa handiagoa da (berotegi-efektuko gasen isurketa handiagoa da, ongari kimiko gehiago erabiltzen dira, lurraren eta uraren kutsadura areagotzen da), produktua-ren kalitatea eskasagoa da eta ez du ia enplegurik sortzen. Ekoizpen-mota horren beste ezaugarri bat da milaka abelburu pilatzen direla halako baldintzetan non animaliak batzuetan ezin baitira ezta mugitu ere egin, eta mekanikoki gizentzen baitituzte, hiltzeko unea heltzen den arte.

Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren datuekin bat, lurrazpiko uren kontrol-estazioen % 30etan eta azaleko uren kontrol-estazioen % 50etan ikus daiteke uraren kalitatea txarra dela, nitratoen erruz. Europako Batzordeak espediente bat abiarazi zuen Espainiaren aurka 2018an, eta neurriak har zitezen eskatu zuen 2020an, industria-abeltzaintzak bereziki sortutako arazo hori konpontzeko hain zuzen ere. Zenbait autonomia erkidegotako lurraldearen ia erdia dago gehiegiz-

ko nitratoek kutsatuta. Kutsadura hori % 50 areagotu da lau urtean.

Eredu horrek ondorio larriak dauzka ikuspegi ezberdinetatik: osasunari dagokionez, abeltzaintza industriala da munduko antibiotiko-kontsumitzaile masibo nagusia, eta nabarmenki eragiten du botika horien eraginkortasun-galeran; horrez gain, berotegi-efektuko gas-isurketaren parte handi baten eta akuiferoen munda-kutsaduraren errua dauka. Baina inpaktu soziala ere badauka, ezen makrohaztegiak dauzkaten udalerriek biztanleria eta abeltzain-enplegua abaila handiagoz galtzen dute beste batzuek baino, zeinetan ustiategi estentsiboak, familiarak eta jasangarriak dauden. Eragina jasaten duten beste sektore batzuetako bat turismoarena da.

Egoera honen kronifikazioa ekiditearren, apustu egin behar da, ezinbestez, abeltzaintza-ekoizpen estentsibo eta lurraldeari lotua lehensiko duen eredu baten alde, abeltzainen bizimodua jagonen duena landa-garapena eta biztanle-ezarpenean lehenetsiz, eta,aldi berean, abeltzain-sektorea halako moduz arautu behar da non ezarriko baita, batetik, ekoizpen-sektore bakoitzeko ustiategi gehieneko tamaina, eta, bestetik, azimenduz zama onargarria berrikusi beharra ekosistemen errealitateen eta klima-aldaketari buruzko aurreikuspenen arabera.

Nafarroan aurkitzen da, Caparroson, Espainia-ko Estatuko makrohaztegi handiena, eta haren jabeen asmoa da eredu hori bera inguruetako Noviercas udalerrian ezartzea, milaka behi gehiagorekin.

Caparrosoko haztegi 5.200 behi daude. Haietako bakoitzak 100 litro ur kontsumitzen du egunean, eta urtero 189.000 m<sup>3</sup> munda sortuko dituzte. Inguru horretako lurzorua eta akuiferoen kutsadura ezin eztabaidatuzkoa da.

Hori guztia dela-eta, behean sinatzen duten talde parlamentarioak eta foru parlamentarien elkarteak honako erabaki proposamen hau aurkezten dute:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du eragotz dezan Nafarroan nekazaritza- eta abeltzaintza-makroustiategiak instalatuak izatea, nekazaritza industrialeko kontzentrazio- eta ekoizpen-eredu bati jarraitzen zaizkionak, halakoa non bateraezina baita ingurumenaren zaintzarekin eta landa-garapenarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du azter dezan zein diren aukerak Caparrosoko makrohaztegiak egungo abere-kopuruari eusten dion bitartean haren jardua

na amaiarazteko, eta horren arabera urratsak egin ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du abeltzaintza estentsibokoak diren ustialeku sozial eta familiarak susta eta babes ditzan, apustu argia eginez betiko nekazaritzaren eta behi-, ardi-, ahuntz- nahiz txerri-aziendako abeltzaintza estentsiboaren alde, zeinak ingurumena errespetatzen baitu eta jasangarria dela nahiz kalitatea duela frogatu baitu.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu araubideak landu ditzaten abeltzainak integrazio-enpresengandik babesteko, halatan une oro egiaztatu ahal izate aldera sortzen diren kontsumogaiei, langileen bizi-baldintzei eta animalien ongizateari buruzko kalitate-arauak eta legezko betebeharrak bete egiten direla.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lan egin dezan gure

komunitateko esne- eta okela-sektoreen lehiakortasuna mantentzearen alde, bai eta gainerako abeltzaintza-sektoreena ere, gure komunitateko beste sektore edo zona batzuetarako proposa litezkeen makroproiektuak, lehiakortasunean eragiten dutenak, errefusatuz.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du beharrezkoak diren neurri guztiak bidera ditzan, berriki onetsitako Elikaketearen Legea, zeinak abeltzainei bidezko prezioak bermatzen baitizkie, bitarteko lagungarri eta eraginkorra izan dadin abusuak amaiarazteko.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du abian jar ditzan zuzeneko finantza-laguntzak nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorearentzat, ekoizpen-kostuen gehiegizko igoerari aurre egin ahal izateko.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentariak: Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa De Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio Lan-erreformarako, enpleguan egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuari.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio Lan-erreformarako, enpleguan egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Ramón Alzorric Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio Lan-erreformarako, enpleguan egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuari.

Ministroen Kontseiluak Lan-erreformarako, enpleguan egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretua onetsi zuen 2021eko abenduaren 28an. Testuak jasotzen duen lan-erreformak egonkortasuna emanen die haren helburuei, zeren eta elkarrizketaren, akordioaren, itunaren eta kontzertazio sozialaren fruitu baita, Elkarrizketa Sozialaren esparruan. Gainera, sindikatuen (CCOO eta



UGT), patronalaren (CEROE eta CEPYME) eta Espainiako Gobernuaren arteko akordio historiko bat da, zeinetan hiru alderdien adostasuna lortu baita lehenbiziko aldiz Langileen Estatutua 1980an onetsi zenetik. Finean, honakoa sakoneko lan-erreforma da, zeinean suspertze garbi baten aldeko apustua egiten baita eta uztartu egiten baitira langileriaren lan-eskubideen hobekuntza nabarmen bat eta enpresaburuen interesak.

Lan-erreforma hau, gure herrian enpleguaren kalitatea hobetzeko beharrezkoa izateaz gain, Europako erakundeek aho batez babestu duten Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoaren arabera da. Bruselak urteak daramatza esaten Espainiako lan-merkatua ezaugarritu duten desorekak eta anomaliak konpondu beharra zegoela.

Prekarietatea eta, batez ere, behin-behinekotasun onartezina dira lan-merkatuaren ahuleziak, eta horiek eragina dute gure eredu ekonomikoan, gure enpresa-sareak lehiakortasuna galtzen baitu eta areagotu egiten baitira gizarte-, lurralde- eta genero-arrakalak.

Hortaz, kontzertazio sozialaren fruitu den testu baten bidez lan-prekarietatea –eta espresuki behin-behinekotasuna– eteten bada, Bruselaren abala edukiko dugu Next Generation funtsak jasotzeko (behar-beharrezkoak direnak suspertze ekonomiko eta sozialari aurre egiteko).

Lan-erreformak hiru helburu nagusi ditu: behin-behinekotasuna mugatzea eta azpikontratazioen gehiegikeriei galga ematea, negoziazio kolektiboan indarrak orekatzea eta, aldi berean, enpresen malgutasuna mantentzea.

Erreformak, halaber, gure lan-merkatuaren arazo endemiko batzuei aurre egiteko neurriak, munta handikoak, jasotzen ditu –esaterako, prekarietateari eta langabeziari; behin-behinekotasunaren aurka, kontratazio mugagabea bultzatzen du; kontratu-moten kopurua murrizten du, mugagabea orokortuta; negoziazio kolektiboa berreskuratzen du, eta lan-harremanen eredu berriaren erdigunean jarri; ultrajarduera mugagabea berreskuratzen du; galga ematen die kaleratzeei, produkzio-eredua babesten baitu; aldi baterako iruzurrezko kontratazioari pizgarriak kentzen dizkio; langileen prestakuntza bultzatzen du, eta abar.

Hitz batean, legeak hazkunde ekonomikoa eta enplegua erreformatu nahi ditu; horretarako, gure lan-ereduaren erdigunean jartzen ditu negoziazio kolektiboa, enpresaburuen eta langileen arteko elkarrizketa eta, batez ere, lana duina izatea. Horregatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak balioan jartzen du eta babesa ematen dio Elkarrizketa Sozialaren esparruan lortutako akordioari, zeinari esker onetsi baita Lan-erreformarako, enpleguan egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du aurrerabidea egiten jarrai dezan Elkarrizketa Sozialaren esparruan, gurean kalitatezko enplegu eskubideduna erabat sendotzeko.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 12an

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten ditu Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilaria eta Osasuneko zuzendari nagusia, Osasun Departamentua gidaritzapean izanda bete dituzten eginkizunei dagokienez.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bazarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten baititu Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilaria eta Osasuneko zuzendari nagusia, Osasun Departamentua gidaritzapean izanda bete dituzten eginkizunei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Legegintzaldi hau COVID-19aren pandemiak baldintzaturik suertatu da. Pandemia bat, hain zuzen, Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak bertako kontseilariaren eta zuzendari nagusiaren burutzapean kudeatu duena, emaitza zinez hobegarriak lorturik, hutsaren pareko jardunaren bidez eta Nafarroako osasungintzaren gainerako proiektu eta erronkak abandonaturik. Horrek Foru Komunitateko pertsona askoren osasunean ondorioak izan ditu, ditu eta izanen ditu, epe ertain nahiz luzean.

Nafarroa pandemia-aldi osoko COVID-19aren intzidentziarik handieneko erkidego gisa nabarmendu da, izandako sei olatuetako bostetan intzidentzia handiena izanda; seigarren olatu honetan Europako herri guztietako intzidentzia gaitzesten duena. Saihesteko modukoak ziren

okerrak eginez, hala nola lehen olatuan zehar Nafarroak zeukan test-ahalmena ez erabiltzea, edo bosgarren eta seigarren olatuetako arakatze-lan negargarria. Intzidentzia multifaktoriala ez da justifikatzen egin diren testen kopuruagatik, Nafarroako Gobernuak hala aditzera eman nahi izan duen arren, eta txertatze-prozesua hasi aurreaurreko seroprebalentzia-azterlanak objektibotasunez erakusten duenez, ezen Nafarroa baitzen antigorpuzdun pertsonen portzentajerik handieneko bigarren erkidegoa, birus-transmisio handiaren erakusgarri, bai eta eginiko test diagnostikoekin zerikusirik ez izatearen erakusgarri ere. Intzidentzia horrek, nahiz eta egoera epidemiologikoa desberdina izan, batik bat txertoengatik, ikaragarriko presio asistentziala ekarri dio Oinarrizko Osasun Laguntzari, azkenean ospitale-presioa sorturik. Olatuak joan eta olatuak etorri zuzendu gabe utzi dituzten kudeatze-okerrak, autoebaluaziorik eta autokritikarik ezaren ondorioz.

Egungo Nafarroako Gobernuaren osasun-kudeaketak Nafarroako osasungintza publikoaren narriadura orokortua eragin du eta eragiten segitzen du. Ezinezkoa da horren justifikazio bakarra pandemia izatea, eta horren ondorioz ondoeza eta ezinegona zabaldu dira, jadanik, profesionalen eta biztanleen artean, osasungintzako langileen nahiz langile soziosanitarioen ahalegin, inplikazio, esfortzu eta jardun aparta gorabehera.

Osasungintzan, peonadetan eta hitzarmenetan gastu historikorik handiena egin den legegintzaldi honetan itxaronaldirik okerrenak lortu dira kirurgian, lehen kontsultan eta berrikuspenetan. Beren horretan diraute telefono-kolapsoak, Oinarrizko Laguntzan osasun-artatze presentziala lortzeko oztupoek eta abandonatua eta Gobernuaren laguntzarik gabe sentitzen den lehen asistentzialaren gainezka egiteak. Aurrerapauso gutxi, edo batere ez, egin da Nafarroako osasungintzarentzat beharrekoak diren araudian, proiektuetan eta osasun-erronketan; behin eta berriro urratu dira hartutako konpromisoak, Osasuneko kontseilariak eta Osasuneko zuzendari nagusiak ardurapean izanda bere buruaren miran amildu den Departamentu bat, kolektibo profesionalen parte-hartzeari eta talde parlamentarioen lagundu

nahiari bizkar eman diona, salbuespenezko egoera batean erabakiak hartzeko.

Ezinezkoa da Nafarroako osasungintzak legegintzaldi honetan nozitu duen okerbidea zuzentzea, aldaketarik egin gabe Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren eta Osasuneko zuzendari nagusiaren politikagintzan eta osasun-kudeaketan.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten ditu Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilaria eta Osasuneko zuzendari nagusia, Osasun Departamentua gidaritzapean izanda bete dituzten eginkizunei dagokienez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Noain 1521. Azken bataila - La última batalla liburuaren ediziorako emandako dirulaguntzari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, *Noain 1521. Azken bataila - La última batalla* liburuaren ediziorako emandako dirulaguntzari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 1eko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00293), jakin nahi baitu Kultura eta Kirol Departamentuak zenbateko dirulaguntza eman duen Noain 1521. Azken bataila - La última batalla liburuaren ediziorako. Hona Nafarroako Gobernuko departamentu horretako kontseilariak ematen duen informazioa:

Kultura eta Kiroleko kontseilariaren urtarrilaren 20ko 2/2021 Foru Aginduaren bidez, "Ediziorako laguntzak irabazi-asmorik gabeko entitateentzat, 2021" deialdiaren oinarri arautzaileak onetsi ziren, bai eta 40.000 euroko gastu-baimena ere. Foru agindu hori 2021eko 32. NAO n argitaratu zen, otsailaren 11koan.

[https://www.navarra.es/documents/48192/6870021/Orden%20Foral\\_2E-2021\\_CSV.pdf/c51f2b43-d4c7-4081-35b3-f3f6f828accb](https://www.navarra.es/documents/48192/6870021/Orden%20Foral_2E-2021_CSV.pdf/c51f2b43-d4c7-4081-35b3-f3f6f828accb)

Laguntzen deialdi horrek, aurrekontuko egozpenari eta dirulaguntzaren zenbatekoari buruzko atalean, honako hau dio:

3. Aurrekontuko egozpena eta dirulaguntzaren zenbatekoa

3.1. Laguntza hauek (40.000 euro gehienez) Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko gastuen aurrekontuaren kargura finantzatu dira.

3.2. Proiektu bakoitzerako laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen onartutako aurrekontuaren % 70 baino handiagoa.

Onartutako aurrekontua entitateak aurkeztutako aurrekontua izanen da, baina diruz lagungarriak ez diren gastuei dagozkien diru kopuruak kenduta, deialdi honen 5. oinarrian ezarritakoarekin bat.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera eman litezkeen laguntzen baturak deialdian ezarritako zenbatekoa gainditzen badu, entitate onuradunen artean hainbanatuko da eta proportzionalki jaitsiko da zenbatekoa, puntuazioaren arabera.

*Noain 1521. Azken bataila/ La última batalla* liburuaren espedientearen gaineko informazioari dagokionez, deialdiari buruzko informazioa publiko da, eta hemen dago eskuragarri:

<https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/Ayudas-a-la-edicion-para-entidades-sin-animo-de-lucro-2021?back=true&pageBackId=5722676>

Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren apirilaren 6ko 40E/2021 Ebazpenaren bidez ebatzi zen "Ediziorako laguntzak irabazi-asmorik gabeko entitateentzat, 2021" dirulaguntzaren deialdia.

Puntuazioak —Noain 1521. Azken bataila/ La última batalla liburuarena barne—, balorazio irizpideak eta aurkeztutako proiektuei emandako diru kopuruak Nafarroako Gobernuko tramiteen katalogoan ikus daitezke:

[https://www.navarra.es/documentos/48192/6870021/Resoluci%C3%B3n\\_40E-2021+sin+CSV.pdf/ad898d20-91f4-2267-f463-23d082a3da77?t=1618301033817](https://www.navarra.es/documentos/48192/6870021/Resoluci%C3%B3n_40E-2021+sin+CSV.pdf/ad898d20-91f4-2267-f463-23d082a3da77?t=1618301033817)

Zehazki, aipatu liburuak 1.698,47 euroko dirulaguntza jaso du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 27an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Palacio de Aroztegia sustatzaileari obra-lizentzia administrazio-isiltasunagatik ematea baliogabetzea errefusatzeko duen Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren ondotik egindako jarduketari eta aurreikuspeni buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Palacio de Aroztegia sustatzaileari obra-lizentzia administrazio-isiltasunagatik ematea baliogabetzea errefusatzeko duen Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren ondotik egindako jarduketari eta aurreikuspeni buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 1eko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak 10-21/PES-00295 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzuteko. Hori dela eta, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

Baztango Aroztegia jauregiaren inguruko turismo, ostalaritza, kirol eta bizitegi eremuko UPSa ez du interes orokorrekoa deklaratu Nafarroako Gobernuak, eta deklarazio hori nahitaezko baldin-

tza da UPS batean aurreikusten diren obrak udal lizentziaren pean ez egoteko, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 47. artikuluen arabera (dekretu horrek onetsi zuen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina). Beraz, udalari dagokio obra lizentzia izapidetu eta, bidezkoa bada, ematea, bai eta, egin beharreko obrei dagokienez, legezkotasuna babesteko eta urratutako ordena berrezartzeko behar diren jarduketak egiteko eskumena ere. Horretan ez du inolara ere esku hartu behar Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak. Edozein esku-hartze udal autonomiaren kontrakoa litzateke.

Horregatik, azalduetakoa aintzat harturik, departamentu honek ez du inolako jarduketarik egiteko asmorik Aroztegia Jauregiaren sustatzaileari administrazioaren isiltasunaren bidez obra lizentzia ematearen inguruan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria, José María Aierdi Fernández de Barrena

## Galdera, Nafarroan jatorri hidraulikoko energia elektrikoaren ekoizpenerako indarrean dauden emakidei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan jatorri hidraulikoko energia elektrikoaren ekoizpenerako indarrean dauden emakidei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 1eko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00296) Nafarroan jatorri hidraulikoko energia elektrikoaren ekoizpenerako indarrean dauden emakidei buruz. Hona Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak zehatz-mehatz al daki Nafarroako lurraldean zenbat emakida dagoen eta horien ustiapena zertan den? Hala baldin bada, informazio hori jasotzen duen mapa igortzea nahi dut.

Emakida da uraren erabilera pribatiborako eskubidea ematen duen titulua. Urari buruzko Legearen testu bateginaren IV. tituluaren eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren II. tituluaren arautzen da emakidak ematea:

Apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onesten du, Urari buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatuz. Honako hau dio 93.3 artikuluan: "Jabari publiko hidraulikoari dagozkien baimen eta emakidak ematea arroko erakundearen eskumena da, salbu eta Estatuaren interes orokorreko obrak eta jarduketak tartean direnean, horrelakoetan Obra Publikoetako eta Hirigintzako Ministerioak izanen baitu eskumena, Urari buruzko Legearen testu bateginaren 24.a) artikuluan ezartzen den bezala."

Kontsultaren unean, Industria Antolamenduen, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzuak ez zeukan informazio zehatzik indarrean zeuden emakiden kopuruaz.

Informazio hori urrian eskatu zaie arroko erakundeei, alegia, Kantaurialdeko Konfederazio Hidrografikoari eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari, eta oraindik ez da erantzunik jaso.

2. Zein da ekoizpen elektrikoaren bolumena eta zer ehuneko egiten du gure erkidegoan gaur egun dagoen kontsumo osoarekiko?

Red Eléctrica Españolaren datuen arabera, Nafarroan energia ekoizteko zentral hidraulikoek guztira 238 MW-eko potentzia instalatua dute, eta balio horrek aldaketarik gabe eutsi dio 2018-2020 bitartean.

	2018	2019	2020
<b>Jatorri hidraulikoko energia elektrikoaren ekoizpenaren bolumena</b>	661.000 MWh.	509.428 MWh.	539.597 MWh.
<b>Ehunekoa, Nafarroako amaierako energia kontsumo osoarekiko</b>	% 2,9	% 2,2	% 2,6

3. Indarrean dauden emakida guztiak aktibatuko balira, zein izanen litzateke ekoizpen elektrikoaren bolumena eta gure erkidegoko kontsumo osoarekiko ehunekoa?

Galdera horri erantzun ahalko zaio behin eskrutatukoan Kantaurialdeko eta Ebroko konfederazio hidrografikoei eskatutako informazioa, galdera honen 1. puntuaren erantzunean aipatua.

4. Taxutu edo taxutuko al da energia hidraulikoaren ekoizpena aktibatzeke ekimenik ustiatzen ari ez diren emakidetan?

Nafarroako 2030 arteko Energia Planak (NEP 2030) potentzia txikiko instalazio horiek zaharberritu eta mantentzeko programa bat aurreikusten du, halakoak errentagarri bilakatzeko (1.5.1.4. Hidroelektrikoa). Halaber, Garesen dagoen Erminetako minizentral hidroelektrikoa eta haren ingurunea lehengoratzeko proiektua jasotzen du (2.3.4 helburua).

Proiektu horren bidez lehengoratu nahi den Erminetako minizentral elektriko horrek 1918tik 80ko hamarkadara arte funtzionatu zuen. Helburu nagusia da bera eredutzat hartzea mikrosorkuntza sakabanatuko etorkizuneko beste proiektu batzuetarako. Ereduak ziklo osoa betetzen du, hasi sorkuntzatik eta ekoiztutako energiaren erabilera efizienteraino. Proiektu horren beste xedea da

herritarrei bestelako energia eredu bateranzko aldaketaren ardura harraraztea, non, tokian tokiko energia baliabideen erabilera dela medio, sorkuntza sakabanatuak garrantzi handiagoa izanen duen, eta energia-mixean pisu nabarmenagoa.

Herritarren parte-hartzea ere ahalbidetzen du, boluntariotzaren bitartez, eta garapen soziala ahalbidetzen duen lotura sortzen du herritarren eta energia sorkuntzaren artean. Hala, bada, lan egiten ari da herritarrak sentikortu eta informatzeko tokian tokiko baliabideen erabilera energia sorkuntzarako duen garrantziaz. Laburbilduz, mikrosare adimendun bat sortu nahi da, etorkizuneko proiektuetarako pilotu gisa erabiltzeko asmoz.

Bestalde, NEP 2030ek hainbat programa eta jarduketa garatzen ditu minizentral hidroelektrikoei buruzko komunikazioaren, parte-hartze publikoaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren alorretan (9.3.2 helburua).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 22an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## Galdera, otso iberiarra espezie babestuen zerrendan sartzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, otso iberiarra espezie babestuen zerrendan sartzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 8ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakin nahi baitu zer jarrera duen Nafarroako Gobernuak, o-

tso iberiarra espezie babestuen zerrendan sartzeari buruzko bozketan abstenitu ondoren (10-21-PES-00297). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak iragan otsailaren 4an egindako bileran, gai-zerrendan jaso zen otsoa (Canis lupus) babes bereziko espezieen zerrendan sartzeko proposamena.

Proposamena bozkatzea planteatu zenean, Nafarroaren jarrera ez zen izan abstenitzea, baizik eta bozketan parte ez hartzea. Hona hemen jarrera horren justifikazioaren oinarria: proposamenaren aurretik beharrezkoa zatekeen Estatuak hausnarketa egokia egitea autonomia erkidegoekin batera, otso populazio handiena dutenekin bereziki; errolda eguneratzea, espeziearen bila-



kaeraren azterketa zientifikoa egin ahal izateko; eta elkarrekin jorratzea abeltzaintzaren eta otsoaren arteko bizikidetzarako mekanismoak, eragindako sektore sozial eta ekonomiko guztien arteko adostasunaren bila. Hori guztia egin baino lehen otsoa babes bereziko espezieen zerrendan sartzea itsumustuka aritzea da, eta ez dago pre-sarik horretarako, espeziearen populazioen dinamika ikusita. Horregatik, Nafarroak uste izan zuen ez zela proposamena bozkatu behar, kendu baizik.

Gaur egun hau da otsoaren egoera Nafarroan:

- Ez dago espeziearen presentziaren berririk aspaldi-aspalditik.
- Departamentuak otsoaren bilakaera ezagutzen du, hala Nafarroatik mendebaldera kokatutako otso iberiarraren populazioen bilakaera nola italiar jatorriko otsoaren hedapena Frantzian eta Pirinioetan zehar.

– Nafarroatik hurbil ez dago talde ugaltzaileen presentziaren berririk, baina ezin da baztertu bakarka dabilen otsoren bat agertzea noizean behin.

Hurrengo urteetan ziur aski espeziea hedatu egingen da, eta horregatik Departamentua lanean ari da, abeltzaintza estentsiboa sustatzeko prestazten ari den planean abereak babesteko neurriak jasotze aldera. Ildo beretik, nekazaritzako ingurumen neurri bat proposatuko da hurrengo Landa Garapeneko Planean, abeltzaintza estentsiboaren eta harrapari handien arteko bizikidetzeta bideratzeko. Hartzen diren neurriak hartzen direla ere, abeltzaintza sektorearekin adostuak izanen dira.

Iruñean, 2021eko abenduaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## Galdera, otso iberiarraren balizko erasoei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, otso iberiarraren balizko erasoei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 8ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du otso iberiarraren balizko erasoak leuntzeko hartu beharreko prebentzio eta arintze neurriei eta balizko kalteordainei buruz (10-21-PES-00298). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ingurumen Zuzendaritza Nagusia oso aspalditik otsoaren bilakaerari adi dago penintsulan nahiz penintsulatik kanpo. Testuinguru horretan Estatu-ko Administrazioaren eta autonomia erkidegoen arteko lantaldeetan parte hartu dugu eta parte hartzen dugu.

Nafarroan oraindik ez dugu izan otsoaren arrasto egiazaturik, nahiz eta otsoa iritsi den zurrumurrua dabilen orain hamarkada batzuetatik. Gaur egun ez dago otsoaren noizbehinkako presentziarik, are gutxiago otso talde egonkorrik, ez foru lurraldean ez inguru hurbilean. Horregatik, ez dakigu espezie horren presentziak zer ereduri erantzunen dion: sarbideak, lehentasunezko eremuak, bakarka dabiltzan otsoen edo familia-taldeen presentzia, eta abar. Ezin dugu jakin ezta otsoaren zein subespezie detektatuko den lehendabizi Nafarroan. Otso iberiarra izan daiteke, galderan adierazi bezala, edo bestela subespezie italiarra, Pirinioetan zehar hedatzen ari baita.

Dena dela, otsoak aziendarekin izanen duen interakzioaren nondik norakoak ezagutu arte, Europako beste abeltzaintza lurralde batzuetan ere aziendaren eta harrapari handien bizikidetzaren arazoa dutenez, Nafarroako prebentzio neurriak lurralde horietan erabili izan direnen antzekoak izanen dira. Zenbait neurri aztertuko dira, esaterako abere taldeak babesteko txakurrak, babes-itxitura eramangarriak edo finkoak, edota abere taldea ahalik eta arrisku txikienarekin artatzeko jardunbideak. Departamentua nekazaritzako ingurumen laguntzen esparru bat prestatzen ari



da abeltzaintza estentsiboaren eta harrapari handien bizikidetzaren errazteko xedez.

Arintze neurriei dagokienez, helburua da hala-koak ahalik eta gutxien aplikatu behar izatea, baina behar izanez gero kalte-ordain egokiak aplikatuko dira, Basa fauna eta haren habitatak

babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak 31. artikuluan ezartzen duenaren babesean.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López